



Baso-sute Larrialdiei aurre egiteko Udal Plan Berezia (BLUPB)

HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Aurkezpena

INFONA 2022 Planaren arabera, Antsoain sute Arrisku Handiko Eremuan sartuta dago, eta **Baso-sute Larrialdiei aurre egiteko Udal Plan Berezia (BLUPB)** egina izan behar du derrigorrez.

Plan horren helburua da baliabide publiko, pribatu eta komunitarioak erabiltzeko eta antolatzekeo prozedurak ezartzea, jardunbide azkarra, koordinatua eta eraginkorra bermatzeko.



Autobabes-neurriak sute baten aurrean

Baso-sutea baino lehen

- ✿ Ezagutu Antsoainen dauden baliabideak, ebakuazio-mapa eta elkartzeko guneak (IDAKI Kiroldedia), eta ziurtatu zure familiako kide guztiek toki horiek ezagutzen dituztela.
- ✿ Abisuak Udaleko hedapen-zerrenden bidez jasotzeko, bidali ALTA hitza 696 241405 Whatsapp-era.

✿ Jarraitu informazio eguneratua Nafarroako Larrialdi Zerbitzuko eta Gobernuako sare sozialetan (@bomberos_na, @policiaforal_na, @noticiasgob_na, @guarderio_na, @112_na).

Zure etxea prestatu eta babestu:

- Saia zaitez suteei aurre egiteko materialak erabiltzen
- Prest izan beti su-itxalgailuak, kanpoko ur-harguneak eta mahuka.
- Atondu zure etxearen inguruan gutxienez 10 metro zabalerako espazio garbi bat hostorik gabea, landare-hondarrik gabea eta material sukoirik gabea.
- Prestatu larrialdietan zigilatze moduko gela bat.
- Garbitu behar bezala zure etxeko teilatua, hodiak eta tximiniak.
- ✿ Ez pilatu erraz erretzen den materiala zure etxearen ondoan, ezta ganbaran eta biltegietan ere.



Autobabes-neurriak sute baten aurrean



Sutea bitartean

- ✿ Erne egon agintariek komunikabideen, sare sozialen eta megafoniaren bidez ematen dituzten aholkuei.
- ✿ Utzi ingurua berehala, horrela agintzen badizute. Ebakuazioa autoz egiten baduzu, igo leihatilak eta itxi aireztapen-saretak.
- ✿ Erabili sare sozialak edo mezulari-aplikazioak komunikatzeko Hain segur, telefono-sarea gainezkatuko da.
- ✿ Harrapatuta bazaude, 112ra deitu eta azaldu non zauden (MY112 aplikazioa).
- ✿ Erabili N95 musukoak keaz babesteko.



Autobabes-neurriak sute baten aurrean

Sutearen ondoren

✿ Ez itzuli etxera agintariek toki segurua dela bermatu arte eta, zure etxea suak kaltetua badago, ez itzuli teknikari aditu batek sartzea segurua dela baieztatzen ez dizun bitartean.



✿ Urrundu zaitez errauts beroetatik, zuhaitz kiskalietatik eta kea darioten txingorretatik. Erabili babes-jantzi egokiak eta musukoa berreskuratze lanetan ari zaren bitartean.

✿ Hartu ondasunaren lekukotza argazkien bidez. Egin kalteen inbentarioa eta zure aseguru konpainiari jakinarazi.

Suaren erabilera

**Prebentzioa da suteen kontra
borrokatzeko tresnarik hoberena**

222/2016 Foru Ordenak dioenez, baimen berezik ezean, Nafarroan debekatua dago:

- a) **Sua erabiltzea** zuhaitz, zuhaixka eta sasi asko dituzten lur guztietan, larreak izan edo soroak izan.
- b) **Hondakinak** erretzea nekazal lurren edo basoen inguruneetan.
- c) **Erretzen ari diren objektuak edo sute bat eragin dezakeen edozein materiala botatzea** edo hor nonbait uztea, baita ibilgailuetatik zigarrokinak botatzea ere.
- d) **Uztondoak erretzea**, lur lehorretan nola sail ureztatuetan.



Suaren erabilera

Halaber, Nafarroako hegoaldean (Antsoain bertan kokatzen da araudi horren arabera) honako neurri hauek ezartzen dira prebentzio gisa:

✿ **Ekainaren 1etik irailaren 30era:** debekatuta dago sua erabiltzea gunek irekietan, aisialdirako prestatu direnak ere bertan sartzen direla, hala nola barbakoak eta kanpoko beste instalazio batzuk, baita errepideetako atsedeen-guneak ere. Debekuak sua eragiten duten tresna guztiei zuzenduta dago, kanping-gasari, esaterako.

✿ **Urteko beste hilabeteetan:** sua erabil daiteke aisialdirako, betiere horretarako prestatuak dauden tokietan, eta mantentze-egoera onean badaude. Arriskua saihesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko dira.



Suaren erabilera

Oro har, Nafarroa osorako, (EMETA) Estatuko Meteorologia Agentziaren informazioak baso-sutearen arriskua oso handia edo muturrekoa dela adierazten badu, ezin izanen da surik piztu ezein gune irekian; debekuak lurzoru urbanizaezin orori eraginen dio.

Halaber, ibilgailu motordunek ezin izanen dute baso-pistetatik eta gainerako landa-bide batzuetatik ibili, baso-suteen arriskua muturrekoa denean.

Sute bat ikusten baduzu, deitu!!

